

## OGP Euskadi

### Euskadirako gobernu irekiaren ekintza-plana 2018 - 2020

#### K3 – Aurrerapenak herritarren parte-hartzearen i-lab-ean

Joan zen urrian elkarlanean egin genuen i-lab-aren [fitxa operatiboa](#) abiapuntutzat harturik, 3. konpromisoaren [konpromiso-taldeak](#) bi lansaio egin ditu honako emaitza hauekin:

- **1. bilera (2018/11/19)** taldearen funtzionamendua ezartzeko eta lan-plana egokitzeko, osatzen duten pertsona guztien itxaropen, muga, desira eta marra gorrietatik abiatuta. Jarraian, hemen duzue esteka lehen saioko akta osoarekin. – ([1. saioko akta K3 ILAB](#)).
- **2. bilera (2018/12/18)** I-lab-aren helburuak zehazteko eta ZERi eta NOLARI buruzko ikuspegiak jasotzeko. Kontua ez zen akordio edo adostasunetara iristea, baizik eta mahai gainean iritzi ezberdinak jartzea. – ([2. saioko akta K3 ILAB](#)).

Gainera, **I-lab-aren kontzeptualizaziorako mapaketan ari gara lanean**. Erronkaren zehaztapena eta ezaugarriak zeure eskura daude ondorengo estekan. – ([Kontzeptualizazioa K3 ILAB](#)). Orain arte landutakoari eta egindako aurrerapenei buruzko **informazio zehaztu guztia** aurki dezakezu [www.ogp.euskadi.eus](http://www.ogp.euskadi.eus) webgunean.

Prozesuaren hasieran aipatu genizuen bezala, konpromiso-taldea arduratuko da konpromisoaren hedapena operatibizatzeaz eta **bere eztabaida osatuko duten parte-hartze foroak aktibatzeaz**. **Horren haritik, aurreratzen dizugu martxoan saio ireki bat**, herritarren parte-hartzean berrikuntzako proiektu pilotuak identifikatzera zuzendua, **egingo dugula eta gonbidapena jasoko duzula bertaratzeko**.

Gogorarazi behar dizugu **prozesu hau guztiau irekita dagoela zure iruzkin eta ekarpenetara**. Webgunearen bidez parte har dezakezu edo Goizalde Atxutegirekin harremanetan jarrita posta elektronikoz ([gatxutegi@innobasque.eus](mailto:gatxutegi@innobasque.eus)) edo telefonoz (94 420 94 88)

#### OGP Euskadi – Intereseko informazioa Planaren garapenaz

OGP Euskadiren jarduera konpromiso bakoitza osatzen duten guztiek aurreikusitako lanen arabera garatzen da. Bost konpromiso-taldeak osatu dira, eta planean ezarritako ekintzen hedapenean ari dira jada lanean. Konpromisoetako bakoitzaren aurrerapenaren informazioa [www.ogp.euskadi.eus](http://www.ogp.euskadi.eus) webgunean ere ikus daiteke (hurrengo bilerak, egindako bilerak, bitarteko lan-dokumentuak...):

- Informazioa [konpromisoen](#) hedapenaz
- [Bost konpromisoen bertsio operatiboa](#) hedapenean erreferentziatzen balioko diguna

Ekarpenak egin ditzakezu horietara, baina OGP Euskadi webgunean izena eman edo konpromisoetako bakoitzaren arduradun teknikoarekin harremanetan jarri behar duzu. OGPri buruz parte hartu edo informazioa jaso nahi baduzu, [hemen](#) eman dezakezu izena.